

► **Xabi Azkue** Hitanoa aztertzen ari den gaztea

# «Mozkortutakoan jendea gehiago aritzen duk hika»

Gazte zumaiaarra da Xabi Azkue. Gasteizen Euskal Filologia ikasketak amaitu zituen duela zenbait urte eta, egun, beste hainbat lanen artean, Zumaiaiko hitanoa ari da aztertzen Udalaren beka bati esker. Aita zumaiaarra eta ama oikiarra izateak lagundu egin dio batera eta bestera joan eta konfiantzaz batzuekin eta besteekin hitz egiterakoan.

Gari BERASALUZE

**H**AINBAT eta hainbat kasetan bildu dituen forma, elkarrizketa eta datu guztiak idatzi eta lana laster batean izango du amaituta. Zumaiaiko hitanoaren gorabehera nagusiez hitz egin dugu berarekin.

**GALDERA.**- Xabi, beharbada komeni duk ezer baino lehen hitanoa zer den argitzea.

**XABI.**- Askotan hika eta hitanoa, dena zaku berean sartzen diagu. Hitanoa tratamendu era bat duk, bigarren pertsonakoa, hi eta zu diren bezala. Hitanoa, bigarren pertsona "hi" aukeratzeko bada, tratamendu horri eustea eta horrek eskatzen dituen arau eta erregela denak betetzea duk.

**G.**- Eta egiten ari haizena lana zer duk zehatz-zehatz?

**X.**- Euskaltzaindiak hartu ditik erabaki batzuk eta finkatu dik zein diren euskara batuaren forma horiek. Herrikoak, ordea, forma horietatik urrun daudela ikusten diagu eta egoera hori ikusita Udalak herrian hitanoa zein egoeratan dagoen ikusteko lan bat egitea erabaki zian. Beka bat sortu zian horretarako eta, espero ez banuen ere, nik atera nian.

**G.**- Lana burutzeko, zein metodologiari heldu diok?



Andoni CAMELLADA

**X.**- Hasieran, orain arte jasotako guztiaren azterketa egin diat. Zumaian, lehenago ere jaso izan dituk formak: Azkuek, Irizarrek eta beste zeubait. Hori ikusi eta beste herrietako lanak era aztertu ditiat. Baita hitanoaren eta tratamenduaren inguruan idatzitako artikuluak eta lanak irakurri ere. Horrek denbora eraman zidak. Gero, egoera eta erabilera berezi ditiat eta, bestetik, azkenik, formen bilketa.

Batetik, diagnosi bat egin diat herrian hitanoa nola dagoen eta zenbat erabiltzen den eta, bes-

etik, erabiltzen diren forma zehatzak bildu ditiat. Horretarako baserri ibilikoan erabilerak hori neurtzeko. Herriko koadrelekin ere ibili nauk. Gero, Zumaiaiko 12-16 urte bitarteko ikasle guztiak hartu eta galdekizun bat pasatu zieat horiei eta horien gurasoei. Nolabait ikasle horiek hitanoa zenbat erabiltzen duten eta non jaso duten, familia, lagunartean, eta antzekoak aztertzeko. Guztira 360 ikasle eta 305 gurasoren erantzunak jaso ditiat.

**G.**- Ikasle horien artean bildutako datuekin zer nabarmenduko huke?

**X.**- Beno, mutilek mutilekin hitanoa erabiltzen diate. Neskek mutilekin ere bai, baina neskek neskekin askoz gutxiago. Ikusi diat mutilen artean errotuagoa dagoela. Dena dela, nabaritu diat gazteagoek gehiago erabiltzen dutela hitanoa. Hau kanpokoek, zestoarrek, azpeitarrek, institutura etorritakoan eta hedatu diate. Gure garaian ez genian hainbeste erabiltzen eta, beraz, gazteek Zumaian hika egitea ez duk izan naturalki sortutako zerbait, kanpotik etorritakoa baizik.

Gainera, lagun artean ikasi dudanez ez ditiate arauak ezagutzen, eta forma gutxi eta gaizki erabiltzen ditiate: etorri «dekela», ikusi «dekenian» eta horrelakoak. Zumaian eten bat nabaritu diat. 45 urte ingurukoan arteak gorakoek hika hitz egiten ditek, eta baita 25 urte ingurukoan arteak beherakoek ere. Tartean, ordea, bazegok etena.

**G.**- Noizko izango duk amaituta lan hau?

**E.**- Lehenbailehen nahi nikek. Beste pare bat aste barru edo bukatuta egongo duk.

**G.**- Argitaratzeko asmorik?

**E.**- Beno, hori ez zegok nire kontu. Honen inguruan ez diagu ezer hitz egin baina interesgarria ikusiz gero, argitaratuko dutela iruditzen zaidak. Dena dela, argitaratuko balitz, beste modu batera antolatu eta emaitzak grafikotan-eta bildu eta herriari begira beste maila batean aurkeztea nahi nikek.

## ■ Anekdotak

**G.**- Anekdotarik izango duk.

**E.**- Bai, noski. Entzun ditiat apaizari hika egiteagatik guraso egurtutakoak. Beste batzuk, senar—emazteen artean hika egiten duten galdetzean haserretu egiten dituk: «Nola liteke horrelakorik!» esaten diate, «emazteari zuka eta musuka!». Izan diat bikote baten berri, koadrilan ibili eta elkarrekin hika hitz eginez jardun ondoren, ezkondu ostean hika aritzea hain debeku larria zenez eta elkarri zuka egitea ezinezkoa zitzaizenez, erdaraz hasi zirenak.

**G.**- Bukatzeko, festetan gehiago entzuten al da hitanoa?

**E.**- Ez niake ziur erantzungo, baina ziurrenik hala izango duk. Egia duk mozkortutakoan jendea gehiago aritzen dela hika. Konfiantza edo ausardia kontua izango duk beharbada, baina hala duk. Sanpedrotan ere, beraz, gehiago entzungo ditiagu forma hauek ziurrenik.

*Eten bat nabaritu diat. 45 urtetik gorakoek hika hitz egiten ditek eta baita 25 urte beherakoek ere. Tartean, ordea, bazegok etena.*

## INPERNUPE TABERNA

*Presoekin ere bateginik*

Erribera kalea, 6 • Telf.: 943 86 15 23 • ZUMAI

## Foro Mertzee

Erribera kalea, 6  
• 943 86 17 07

ZUMAI  
(Gipuzkoa)



## IHINTZA TABERNA

C/ Ortega y Gasset

ZUMAI

## OPIL-OKINDECIA PANADERIA ARTESNAL



C/ERRIBERA • Tel. 943 14 30 01  
ANTIO AUZOIA • Tel. 943 86 00 00  
ZUMAI